

Egunkaria auzia Salbuespenak araua baieztatzen duenean

Gomez Bermudezen epaiak harri eta zur utzi du bat baino gehiago. Absoluzioa espero zitekeen zerbait zen, baina ez holako gogortasuna instrukzioarekiko. “Dena da ETA” tesia desmuntatzen hasia al da? Nork daki. Baina salbuespenak araua baieztatzen duela esan ohi da.

URKO APAOLAZA

POZIK agertu dira Egunkariako pieza nagusian auziperatuak zeuden bost lagunak. Absoluzioaren esperantza oso handia zen, baina Auzitegi Nazionalarekin beti komeni da jarra prebentiboa edukitzea. Horregatik, Bosgarren Salaren epaia jakitean arnasa lasai hartzeko parada izan dute. Dena den, absolbituek gogorazazi dute atxilotu, torturatu eta zazpi urtean “zalantza ilunean eskegita” eduki ostean etorri dela garaipena, eta galdera hau egin dute: “Garaipena al da?”. Hein batean bai: “Etorkizunera begira euskalgintza soziala kriminalizatzeko jurisprudentziari bide egingo zion epai zigortzailea behar zuten, eta ez dute lortu”.

Absoluzioaz gain, Gomez Bermudezek presiditzen duen epaimahaiak gogor egin du Egunkaria auzian bezala beste auzi batzuetan ere erabili izan diren tesien eta prozeduren kontra, eta gutxi espero zuten horrelakorik.

Okerrak eta “dedukzio soilak”

Defentsen abokatuek ahozko epaiaren hasieratik esan zuten, klabea izango zen epaimahaiak nola interpretatzen zituen ETArekin ustezko 90eko dokumentuak, herri akusazioa horietan oinarritzen baitzen. Epaiak jipoi ederra ematen die DyJ eta AVTri eta baita Guardia Zibilari ere.

Dokumentu horien interpretaziotik ondorio okerrak ateratzen dituztela dio eta berdin balio dutela akusatuak errugabetezko.

Bestalde, epaiak izaera periziala kentzen die Guardia Zibilaren txostenei, azken batean “dedukzio soilak” bakarrik egiten dituztelako eta lan hori epaimahaiak egin dezakeelako, horretarako “laguntza tekniko” behar izan gabe.

Egunkariaren itxiera eta torturak

Auzitegi Nazionalaren epaiak Del Olmo instrukzio-epailearen lana zalantzan jarri du. Alde batetik dio *Egunkaria* itxeko oinarririk ez zegoela eta inongo araudik ez duela epailea gaitzen komunikabidearen aktibitatea probisionalki suspenditzera. Del Olmok Zigor kodearen 129. artikulua erabili zuen euskal amarauna zarratzeko, baina Auzitegi Nazionalak orain dio artikulua hori ez dela nahikoa egunkari bat itxeko. Azken batean, itxiera inkonstituzionala izan zela iradokitzen du epaiak. Eta hona hemen perla bat: Sententziak “plura-

Garbi geratu da Del Olmok Zigor Kodea bortxatu zuela erabaki larriak hartzeko. Auzipetuko al dute?

ARGAZKI PRESS / JON URBE



Martxelo Otamendi, Iñaki Uriak, Joan Mari Torrealdai, Xabier Oleaga eta Txema Auzmendi. Guztiak absolbituak.

lismoaren ikuspegitik” larriago jotzen du Del Olmoren erabakia, *Egunkaria* euskaraz zegoen egunero-bakarra zelako eta “hizkuntza horretako irakurleei eragin” zielako.

Bestalde, torturen eta tratu txarren salaketan inguruan dio ez zela “kontrol judizial nahikorik” egon atxilotuen inkomunikazio baldintzen gainean. Torturak izan zirela onartzen ari al da, lerro artean, Gomez Bermudez?

Kalte ordainak eta erantzukizunak

Urtarrilean, ahozko epaiketa egiten ari zirenean, akusazioaren talde ultrasukuindarrek kalte ordainen mamua haizatu zuen epaia baldintzatu nahian, eta epaia jakin ostean ere halaxe egin dute erresuminez. Zentzuak dio kalte ordain ekonomikoak egon, egon behar duela, baina Zuzenbidearen ikuspuntutik posible al da horrelakorik? Absolbituen defentsak arlo hori aztertzen ari dira eta oraindik ez dute baloraziorik egin. Badirudi kalean begi bistakoa dena, legearen labirintoan ez dela hain simplea.

Dena den, indemnizazioaz gain, badaude beste erantzukizun politiko eta judizialak. “Sententziak ez du absolbitzen Espainiako Auzitegi Nazionala” zioen duela gutxi Iñaki Uriak. Garbi geratu da Del Olmo epaileak Zigor Kodea bortxatu zuela



erabaki oso larriak hartzeko. Auzipetuko al dute horregatik? Auzitegi horretan bertan badute esperientzia epaileak auziperatzen prebarikazioagatik... Baina, jakina, indar faktiko eskuindarren itzal luzea dago atzean eta gaur egun ametsa litzateke hori.

Erantzukizunak ez lirateke mugatu behar pertsona bakar batzuetara. Azken batean, Fiskaltzak, Guardia

Zibilak eta orduko Espainiako Gobernuako arduradunek ere zerikusi zuzena izan zuten auzia bultzatzeko. Zuzenbide Estatu baten maila arduradun politikoen erantzukizunarekin ere neurtu daiteke, eta dimisiorik edo barkamen eskaerarik ezean, balio beza horrek, behintzat, ipurdibistan uzteko Espainiako demokraziaren maila.

Jadanik ez da "dena da ETA"rik?

Egunkaria auzia ez da amaitu, baina ez dirudi helegiteek eta "pieza ekonomikoak" bide luzea egingo dutenik. Hala ere, "erne" egoteko eskatu diote auziperatuek euskal gizarteari.

Eta zer arrasto utz dezake honek guztiak oinarri edo izaera antzekoa duten beste auzi batzuetan –Udalbiltzakoa laster– edo etorkizunean egon litezkeen balizko beste operazio batzuetan? Sententziaren testuan azpimarratu beharreko esaldi bat bada: "Euskararekin eta euskarazko kulturarekin zerikusia duen oro ETAk sustatzen eta kontrolatzen duelako ikuspegi estu eta okerrak berekin dakar inputazioa funtsik gabe izatea". Ez al gaude "Dena da ETA" tesiaren deslegitimazioaren hasieran? Denborak esango du Egunkaria auzia ote den araua baieztatzen duen salbuespena edo ez. Dena den, Egunkariaren sententzia atera eta bi egun eskasera Guardia Zibilak ezker abertzaleko abokatu eta kide ezagunak atxilotzeak –ETAko kide izatea leporatuta–, tankerak hartzeko balio du. ■

ZIENTZIAZ GÖZATZEA DENOIN E5KU

Bill Brysonen best-seller mundiala lehen aldiz **euskaraz**: **4 milioi** ale baino gehiago salduta mundu osoan.

<http://www.elhuyar.org/edizioak>

Zizpiak
zientzia narrazio seriearen lehen liburua